ELA EUSKAL SINDIKATUA

# Itunpeko Irakaskuntza

Urtarrila 2011 Enero

Boletín de trabajadoras/es de la Red Concertada

## EDITORIALA

### Zure ekimena eta partehartzea funtsezkoak dira

Langilegoari dagokionez 2010. urtea ere annus horribilis-a izan da eta dagoeneko sortu ez dugun krisi honen hirugarren urtea igaro dugu. "Adituen" esanetan krisiak amaitzear behar zuen baina egoerak, krudeltasun osoz, kontrakoa dio eta 2011. urtean nabarmen okerrera egingo du.

Testuinguru honetan, agintari politikoek kapitalari men egin eta beraien interesen alde egiten dute, eskubide sozial eta lan baldintzei eraso eginez eta soldatak murriztuz. Aztertu besterik ez dugu 2011rako onartu berri diren eta azkenengo 30 urteko atzerakoien eta antisozialenak diren EAEko eta Nafarroako aurrekontuak. Gobernuek, kapitalak hala eskatuta, 2011. urtean zehar hauen aldekoak diren hainbat neurri indarrean jartzekotan dira.

Itunpeko irakaskuntzako langileoi ere luzatu digute erasoa. Patronalek bere interesen defentsan jardutea zilegia da. Zilegia ez dena ordea, langileok geure eskubideei uko egiteko eta ezarri dizkiguten soldata murrizketak etsipenez hartzeko nahia azaltzea da, eta bide batez, langileriaren eskubideen erasoaren aurrean, inolaz ere, amorerik emango ez duen sindikatuaren aurka jotzea.

Soldata murrizketa negoziazio kolektiboaren aurkako erasoa da eta patronalak ez dabiltza alde sindikalarekin negoziatzeko asmotaz, ikusle soil gisa edo itunpeko irakaskuntzako langileen kontra hartutako erabakiak balioztatzeko ez bada behintzat. Itunpeko Irakaskuntzako patronalek bere aukera sindikala ere egin dute. Batzuk, gobernuan dagoen sindikatua aukeratu dute, patronal ezberdinekin gutxiengoan sinatzen duena, hauei murrizketak aplikatzeko eta nahi dutena egiteko txeke zuria ematen diena. Besteek, patronalaren argudioak bere egin eta erreklamazioak eta mobilizazioak egiteko eragozpenak besterik jartzen ez dituen sindikatua.

Urteetako borrokek eta negoziazioek homologazioaren atarian jarri gintuzten. Orain, egoera hain desberdina den honetan geure burua errespetatzea ezinbestekoa dugu. ELA horiek defendatzeko dago eta bere esku dituen baliabide guztiak erabiliko ditu, langilegoa bere interesen defentsan antolatuz. Bide honetan zure ekimena eta partehartzea funtsezkoak dira.




LA ACCIÓN SINDICAL Y LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA SIGUEN SIENDO HERRAMIENTAS FUNDAMENTALES EN LA DEFENSA DE NUESTROS DERECHOS

# La lucha es el único camino

La negociación colectiva es la herramienta principal que tenemos para regular nuestras condiciones laborales y sociales. Fruto de la negociación colectiva se establece, entre otros, la distribución de la riqueza generada, elemento fundamental en las relaciones entre la clase empresarial y el capital y la clase obrera.

En los últimos 15 años de bonanza económica, en Euskal Herria las rentas de trabajo han perdido peso de modo sustancial en el reparto de la riqueza. Esto significa que, siendo mayor la tarta a repartir, no sólo no ha habido traslado proporcional a los gastos de personal sino que la misma se ha reducido, en nada menos que un 6%.

Cuando la situación se torna más complicada, como en el caso actual, el ajuste sigue planteándose sobre los mismos, sobre los trabajadores y trabajadoras. En la Enseñanza Concertada estábamos en procesos de homologación, que en la situación actual se han ido al traste. La negociación del convenio está en "stand by", pero a la vista de las actuaciones patronales no tiene visos de volver a ponerse en marcha debido, entre otras, a las decisiones que, de manera unilateral, se están adoptando.

**Ni mentiras ni chantajes ni caminos sin recorrido.** Algunas patronales instan de manera reiterada a los sindicatos a realizar gestiones con la Administración en torno a la financiación, cuando son conscientes de que este planteamiento no tiene ningún recorrido. Si por algo

→

**Patronala eta gobernuaren jarrera ez da bidezkoa. Negoziatzera behartu beharko ditugu**

se caracteriza el gobierno actual es por el oscurantismo y los acuerdos fuera de la mesa de negociación con aquéllos que le bailan el agua, repartiendo dinero público a quienes le firman acuerdos en minoría.

Aunque la situación fuera otra, las patronales saben que ellos son los empleadores, y su propio informe jurídico analizando las reducciones salariales así lo establece. Por tanto, la responsabilidad de negociar las condiciones laborales del personal de la enseñanza concertada es de la patronal y los sindicatos con representación en este ámbito.

Las patronales han negociado partidas que no han tenido traslado directo a los salarios; no pueden pretender ahora, con una información sesgada, socializar los gastos cargándolos en los bolsillos de los trabajadores y trabajadoras.

**Ezin da hitzegin Irakaskuntzaren kalitateaz sektoreko langileen lan-baldintzak kontutan hartu gabe**

Es socorrida la amenaza velada sobre los cierres de centros que pudieran derivarse de la no aplicación de los recortes salariales. Hay que decir que esta premisa es absolutamente falsa. En caso de que hubiera centros con problemas económicos, habría que analizar cada caso concreto con una auditoría que determinara la situación real. Por desgracia, la gran mayoría de los cierres de centros que se han dado en los últimos años han sido fruto de la especulación inmobiliaria o por decisiones que nada han tenido que ver con la situación económica del centro.

Por tanto, ahora más que nunca se hace necesaria la acción sindical y la negociación colectiva para garantizar nuestros derechos. Siendo los trabajadores y trabajadoras elemento nuclear de la enseñanza, únicamente unas buenas condiciones laborales pueden garantizar la calidad de la misma.

# Murrizketei aurre eginez

## SINATUTAKO HITZARMENA EZ BETETZEKO PATRONALAREN AHALEGINA ZAPUZTU BEHAR DUGU




Joan den Abenduaren 2an, Itunpeko Irakaskuntzako langileok kaleetara irten ginen ELAk deituriko manifestazio batetara. Honetara CCOO, STEE-EILAS eta UGT atxiki ziren, ezarritako soldata murrizketak salatzeko eta gure eskubideen defentsan. Bilboko kaleak igaro zituen manifestazioak, itunpeko zenbait ikastetxeren aurretik pasatuz eta Eusko Jaurlaritzaren egoitzatik ere.

Itunpeko Irakaskuntzaren ordezkaritza handiena duen ELAk hainbat aldiz salatu duen moduan, sektoreko patronalek erabakia dute bere finantziazio murrizketak ez diela eragingo bere kontuetan, eta horren zama guztia langileon bizkarrera etorriko dela. Honek argi uzten du hitzarmena ez betetzeko erabakia eta negoziazio kolektiborako dugun eskubidearen urraketa.

**Sektoreko patronal ezberdinek buru belarri ari dira bere erantzukizuna desbideratzen.** Sinistarazi nahi digute murrizketak aplikatzea baino beste erremediorik ez dutela eta, ondorioz, gure eskubideei uko eginez, murrizketak etsipenez onar ditzagun. ELAk, ordea, administrazio publikoko murrizketak salatu zituen legez eta neurri horri babesa ematen zion legea uztailean errekurritu zuen moduan, ez du inolako murrizketarik onartuko itunpeko irakaskuntzako langileontzat.

**Jarraitu beharko dugu mobilizazioak egiten murrizketen aurka eta gure eskubideen defentsan**

Bide horretan, patronalen aurka ezarritako gatazka kolektiboek aurrera jarraitzen dute (urtarrilaren 18an ELAk bideratutako gatazka kolektibo honen epaiketa izango da ikastoletako patronalen aurka, eta urtarrilaren 25ean Ekimen Sozialeko deituriko patronalen aurka. Norbanakoen demandak ere aurrera jarraitzen dute.

**Hau gutxi balitz, 2011rako murrizketak handitzea aurreikusten dute.** Beraz, ez dirudi inongo atzera pausorik emango dutenik.

Guzti honen aurrean, ELAk itunpeko irakaskuntzako langileok animatzen ditu eraso hauei aurre egitera eta iragarriko diren mobilizazioetan parte hartzera ere.

Era berean, langile bakoitzaren informazioa biltzen jarraitzen dugu, norbanakoari dagokion diru kopuruaren demandak ezarri ahal izateko.




# ELAren gehiengoa sendotuta irten da 2010eko hauteskunde sindikaletan

**1980az geroztik, ELA erreferentzia-sindikatua izan da itunpeko irakaskuntzan.** Izan ere, gure sindikatuak gehiengo nabarmena du, urte hartatik hona gehiengoa lortu izan du egin diren hauteskunde guztietan. Ikasturteko lehen hiruhilekoan hauteskunde ugari egin dira ikastetxeetan, eta itunpeko langileak berriro ari dira sindikatu hau bozkatzen.



**CCOO** saiatu da patronala bereganatzen. Eta horretarako, isilpeko akordioak egin zituen K.E.rekin eta AICErekin, azken hitzarmena sinatu baino lehen. Gutxiengotik sinatzearen trukean protagonismoa eskuratu nahi izan zuten, LHko langileak bazterrean utziz. Solaskide "fidagarri"tzat eskaini dute beren burua Hezkuntza Sailarekin negoziatzeko, Hezkuntza Sailean CCOOetik igarotako arduradun asko baitago. Kristau Eskolak argitaratu dituen idazkietan esana du sindikatu horretakoak direla gauzak ondo egiten dituzten bakarrak. Horrela, itunpeko irakaskuntzako irakasleek bertatik bertara ikusi ahal izan dute CCOOen ibilbidea irakaskuntzan zein izan den. Eta ordezkaritza osoaren %12,93 eman diote.

**STEE**k eutsi dio bere aurreko mailari, ikastetxeetan aspalditik lan egiten duten langileei esker; baina ezin izan die helarazi bere mezua beste kidego batzuei. Ondorioz, ordezkaritza osoaren %10aren azpitik geratu da.

**LAB**ek gizarte-ekimeneko ikastetxeetan lehendik zuen ordezkaritza ahula berretsi du (5,57%). Hala ere, ikastoletan sindikatu nagusia da oraindik ere. Hori dela-eta, are ulertezinagoa da haien jokabidea murrizketa-prozesu honetan, men egiten baitiete besterik gabe Partaideren eta EIBren jarraibideei.

**UGT** eta **USO** gainbehera etorritako sindikatuak dira, eta ez dute ia-ia ordezkaririk lortu itunpeko irakaskuntzan.

| | GIZARTE EKIMENA Iniciativa Social | | IKASTOLAK | |
|---|---|---|---|---|
| | Delegatuak | Ordezkaritza | Delegatuak | Ordezkaritza |
| **ELA** | 397 | %58,21 | 103 | %37,18 |
| **CCOO** | 124 | %18,18 | 0 | - |
| **STEE-EILAS** | 88 | %12,90 | 1 | %0,36 |
| **LAB** | 38 | %5,57 | 166 | %59,93 |
| **UGT** | 17 | %2,49 | 0 | - |
| **USO** | 2 | %0,29 | 0 | - |
| **Besteak** | 16 | %2,35 | 7 | %2,53 |
| **Guztira** | 682 | | 262 | |

## Ordezkaritza (%): Gizarte Ekimena + Ikastolak

| | ELA | LAB | CCOO | STEE | UGT | USO | Besteak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 35,34 | 19,83 | 21,55 | 18,10 | 0 | 0 | 5,17 |
| Gipuzkoa | 53,03 | 30,84 | 7,20 | 4,32 | 1,44 | 0 | 3,17 |
| Bizkaia | 55,44 | 14,92 | 14,92 | 10,69 | 2,42 | 0,40 | 1,21 |
| GUZTIRA | 52,14 | 21,27 | 12,93 | 9,28 | 1,77 | 0,21 | 2,40 |

# Itunpeko Irakaskuntza

**Boletín de trabajadoras/es de la Red Concertada**

## 27 de enero, huelga general

ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE e Hiru han convocado huelga general el próximo 27 de enero en Hego Euskal Herria contra la reforma de las pensiones.

El secretario general de ELA, Adolfo Muñoz, ha señalado que la reforma de las pensiones "se hace para que los fondos privados amplíen el negocio; todo lo demás es mentira, una gran manipulación, orquestada con colaboración política".




Desde aquí te animamos a secundar y participar activamente en esta huelga y en las movilizaciones de las que irá acompañada. Si luchamos podemos perder. Si no luchamos estamos perdidos.

## Movilizaciones contra los presupuestos más antisociales de la historia

**ELAk gogor salatu ditu EAE eta Nafarroako 2011ko aurrekontuak antsozialak direkalo**

Cerca de tres mil delegados y delegadas participaron en las manifestaciones convocadas por la mayoría sindical el 15 de diciembre, en Gasteiz, y el 23 de diciembre, en Iruña, en protesta por el carácter antisocial de los presupuestos de 2011. Las manifestaciones, convocadas por los sindicatos ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE e HIRU, fueron precedidas por sendos mítines y finalizaron con un acto de protesta ante las sedes parlamentarias.

El secretario general de ELA, Adolfo Muñoz, "Txiki", denunció que "quienes tienen opción de gobierno representan una casta que colabora con el capital en un saqueo contra los derechos sociales y los salarios". Manifestó, además, que "estamos gobernados por unos políticos irresponsables que dan cobertura a los ensayos del capitalismo; ensayos con personas".




"Nuestra única alternativa -recalcó- es la respuesta sindical y social que seamos capaces de activar para obligar a los gobiernos, capital y patronales a dar marcha atrás en su ofensiva y seguir defendiendo nuestros derechos.

**ELA**

**HARPIDETZA**
**HOJA DE AFILIACION**

**Nº AFILIACION / AFILIAZIO ZENBAKIA**

Nombre / Izena ....................
1er apellido / 1. abizena ....................
2º apellido / 2. abizena ....................
Fecha de nacimiento / Noiz jaioa ....................
Lugar de nacimiento (Indicar provincia) / Non jaioa ....................
D.N.I. / N.A.N ....................

**DOMICILIO / HELBIDEA**

Dirección / Helbidea ....................
Localidad / Herria ....................
Provincia / Probintzia ....................
Teléfono / Telefonoa ....................

**EMPRESA DONDE TRABAJA / LANTOKIAREN IZENA**

Nº Inscripción Seguridad Social / Aseguro Sozialaren Zenbakia ....................
Nombre / Izena ....................
Domicilio / Helbidea ....................
Localidad / Herria ....................
Tipo de industria / Industri mota ....................
Convenio / Konbenioa ....................

**PAGO DE CUOTAS / KUOTEN ORDAINKETARAKO**

Banco o Caja / Bankua edo aurrezki-kutxa ....................
Sucursal / Sukursala ....................
Nº de cuenta / Kontu zenbakia ....................
Tipo de cuota / Zein mailako kuota ....................
Fecha de solicitud / Eskabidea noiz egiten duzu ....................

**Firma / Sinadura**